

PAKO JUARISTI

gogoan dugula

1956an sortu zen estreinako gau-eskola Elgoibarren. Pakok Euskaltzainditik lortutako baimen bati esker, bi abaderekin eta 85 ikaslerekin eman zituen lehen pausoak helduen euskalduntze-alfabetatzeak gure herrian. 50 urteotan egindako ibilbidearen hasierako urratsak izan ziren. Biderik ez zegoen tokian hasi ziren oinez, baina bistan da norabide zuzenean abantatu zirela. Eta hau dena, neurri batean, Pakori zor diogu. Horregatik erabaki dugu gehigarri berezi hau prestatu eta herriari erakustea. Pakorekin geneukan zorra ordaindu nahi genuelako. Gainera, gau-eskola ez zen Pakok gure herriari eman zion bakarra. Izan ere, Pako izan zen gerra osteko iluntasunean piztu zen lehen argia. Berak eragindakoak izan ziren 50eko hamarkadako antzerki emanaldiak, jaialdiak, dantza ikuskizunak eta antzerakoak. Pako zen motorra eta gidaria. Zorretan geunden.



PAKO JUARISTI IRIONDO Errosario kalean jaio zen 1919ko uztailaren 24an. Bi anaia ziren, eta txikiak zirela hil zitzaion ama. Soldaduskan eta gerran egon zen sei urtez, baina armak eskuan izan arren, ez zuen sekula tiro bat bota. 50 urte zituela, kartzelako gerizpea ezagutu zuen urtebetez. Umore handiko gizona zen, saltseroa eta jenio bizikoa. Antzerkia, txistu eta kantua gustatzen zitzaizkion. Herria eta euskara maite zituen. 1994ko martxoaren 4an hil zen 74 urte zituela, etxean eta etxeokak inguruan zituela.



Pakori izugarri gustatzen zitzaion dantza egitea. Eta ondo egiten zuen, gainera. Miren, emaztea, zen Pakoren dantzarako bikotea. Dantzan egiteaz aparte, dantzak erakusten ere jardun zuen Pakok.



Hara eta hona ibili ziren Pako eta Miren dantza erakustaldi eta txapelketetan. Eta, Mirenek esan digunez, txapelketa bat baino gehiago irabazi zuten.



Saltseroa eta umore handikoa zen Pako. Asko gustatzen zitzaion txorimaloke-riak egitea. Jenio handikoa zen, bizi-bizia.



Lagun asko zeukan Pakok, lagun zalea zen. Gainera, bera izaten zen koadrilan saltsa jartzen zuena.



50eko hamarkadan egoera beltza bizi zuten euskarak eta euskal kulturak gure herrian. Pako izan zen iluntasun hartako lehen argia, eta berak zabaldu bidean abantatu ziren gainontzekoak. 1960an, adibidez, herri mailako euskal ezkontza antolatu eta antzeztu zuten euskal kultura indartzeko helburuarekin. Ezkonberriak, gurdia, abadea eta gonbidatuak kalejiran joan ziren Madalatik Plazaraino.



Garai hartan ez zen batere erraza izaten jaialdiak antolatzea (besteak beste, Gobernadore Zibilaren baimena behar izaten zen), baina Pakok beti izaten zituen baimen guztiak eskura.



Antzerkia zen Pakoren *debilidadeetako* bat. Elizako taldea desagertu zenean, bera izan zen Elgoibarko antzerki mundua indartu eta zuzendu zuena.

Ikusten duzun modura, Pakorekin batera makina bat jendeak jardun zuen antzerkian Elgoibarren. Eta, jakin dugunez, estimazio handia izaten zuten batera eta bestera joaten zirenean. Bilboko Arriaga antzokira ere iritsi ziren, eta txalo artean irten ziren bertatik. Gainera, antzerki taldea ez ezik lagun koadrila ere osatzen zuten, eta oso gustura jarduten zuten.



Miren Vallejo, Pakoren alarguna

«Ezkondu arte, laztanik ere ez genion eman alkarri»

Gazte-gaztetatik bateratu ziren Pakoren eta Mirenek bizitzak. Bakoitza etxe batekoa izan arren, uztarri berari lotuta egin zuten bizitza gehientsuena. Eskutik heltzeko beldurrez hasieran. Baina, gerora, bizitzako hamaika plaza eta antzoki pasa zituzten elkarren ondoan, bat eginda. Pako joan zen gure artetik, baina Mirenek gurdari tiraka segitzen du. Pako aldamenean izan zueneko oroitzapenak eta bizipenak kontatu dizkigu.

Akordatzen al zara zelan ezagutu zenuen Pako?

Bai, 13-14 urte inguru izango nittuan ezagutu nabanian. Oso etxekua zan. Izan ere, Pakori txikixa zala hil jakon ama, eta aittarekin eta tiakin bizi zan. Eta Pakoren tia nere amaren laguna zanez, ordu asko pasatzen genittuan alkarrekin.

Eta, azkenean, maitemindu egin zineten?

Bai, Pako gustatu egitten zitzaidan, baiña nere lagun baten atzetik zabilhela pentsatzen naban. Ez zian kasu haundirik egitten. Baiña, egun batian, Pakoren kartia jaso naban. Hola hasten zan: "Adorada, Miren. Te dedico estas humildes líneas para decirte todo lo que por ti siento". Orduan konturatu nintzan Pakoren gustukoa nintzala. Gero, bixona zan lagun bat bialdu zaban neregana zitia lotzeko. Maiatzaren 13an esan zian ia berarekin urtetzia nahi naban. Nik 15 urte nauzkan eta berak 18.

Zelakoa zen Pako?

Mutil formala zan. Berba asko egitten zaban, eta umoria ere haundixa zaukan. Azkeneko txistia beti beria izan behar zan.

Baina, jenioa ere bazeukan, ezta?

Bai, bazaukan jenixua. Bizixa zan. Hasarratzen giñanian ixiltzeko esaten zian, baiña nik zera erantzuten nion: "Bale, ixilduko naiz, baiña neuk daukat arrazoia". Ez zan konforme geratzen.

Akorduan al daukazu nobiotako kontuak?

Bai, lehen esan dizudan moduan, 15 eta 18 urte geneuzkan alkarrekin urtetzen hasi giñanian. Baiña nobixotan hasi eta segittuan, Pakori soldaduskara eta gerra-jutia tokau jakon. Danera sei

urte eman zittuan, baiña armak eskuan izan arren, ez zaban tirorik sekula bota.

Noiz egoten zineten, orduan, elkarrekin?

Ba, soldaduskatik asteburuetan etortzen zanian. Meliton aldera juten giñan pasiatzera besotik helduta. Hori bai, ezkondu arte ez genduan ezer ere egin, eh! Ez zan gogo faltiagatik, baiña ezkondu arte laztanik ere ez genion alkarri eman. Pekatua zan. Pentsaizu, zinera juteko desiatzen egoten giñan alkarren onduan egoteko. Aurpegixa bata bestiaren kontra genduala egoten giñan illunpian.

Muxua ez zan urruti izaten, baiña ... Formalegixak giñan, mas santos ke!



«Pako mutil formala zan; hiltuna eta umore haundikua»

MAITE VALLEJO, koinata



«Fede handiko gizona zan Pako»

Ahizparen nobioa zelako ezagutu zuen Maitek Pako. Eta Maite hamasei urte gazteagoa izan arren, hasieratik piztu zen bien arteko konfiantza. Gainera, Maite alargun geratu zenenean, bizitza asko egin zuten elkarrekin: "Konfiantza haundixa ematekua zan Pako. Ahizparekin urtetzen hasi zanian, adibidez, behin atarixan harrapau nittuan Pako eta Miren. Gabon esan eta bixen aldamenetik pasau bihar nintzarian, zaplazteko kariño bat eman zidan bekokixan nereko kofiantzia irabazteko. Maittasun haundikua zan, noiznahi hasten giñan laztanka".

Umore handiko gizona datorkio burura: "Pako beti umoreko zagan. Umore ona gorde zaban hil arte. Sinistu laike hori? Zittala ere bazan, baiña laster pasatzen jakon". Akorduan dauka etxe barruan beti kantuan egoten zela. Izugarri gustatzen zitzaioa abestea. "Hil baiña 15 egun lehenago, kantuan egin genduan Guardamarretik etxerako bidia".

Bihotz onekoa ere bazen Pako, ematailea: "Oso borondate onekua zan, beti zagan emateko prest. Antzerkixan eteratzen genduan dirua, adibidez, familixa behartsuentzat izaten zan".

Pako benetako Jeltzale zen Maiteren esanetan: "Jaungoikua eta Lege Zaharrak maitte zittuan, hortik datoz JEL letrak. Sinismen haundiko zan, eta ez dot sekula ahaztuko hil aurretik erregalau zidan kurutzetxo. Bere alde errezatzeko zala esanda erregalau zidan". Eta abertzalea ere bazen: "Aberri Eguna ixilpian ospatzen genduan Sogueta basarrixan. Bazkaldu eta gero desfogia izaten zan! Arratsalde osua pasatzen genduan euskal kantuak abesten".

Bizitzan zehar egin zuten bezala, azken egunak ere elkarren ondoan eman zituzten Maitek eta Pakok: "Bera konortetik gabe zagan, baiña nik berba egitten nion: 'Pako, etxian zaude, etxian zaude! A zer nolako girua dagan, zelako maittasuna zure bueltan!' esaten nion. Izan ere, pertsoniak ez deu entzumena galtzen azken momentura arte."



Luzia Zabala

Pakoren koinata



«Elgoibarko
señoritoena
zan Pako»

“Aurretik ere ezagutzen naban Pako, baiña nere nobixuan anaixa zalako hasi nintzan berarekin tratatzen”. Pakoren anaia bakarra, Joxe, Luziaren gizona zen, baina oso diferenteak omen ziren anaia biak, “ez zeukaten zer ikusirik batak bestiarekin”.

Pako gizon “xalaua eta majua” zela esan digu Luziak. Borondate handikoa, “biaje asko egitten zittuan tallarretik, eta, bueltan, beti umientzako erregaluekin etortzen zan”. Umeak ere asko gustatzen zitzaizkion, eta berak familiarik ez zuenez, ilobak asko maite zituen. Hori bai, siestan zegoenean, inguruan zeuden umeak isilik egon behar ziren Pako esnatu arte.

Gizon ona eta majoa zen, baina agintzea ere gustatzen zitzaion, “sententzias` zan. Eztabaidetan berria izan bihar zan azken berbia, baiña nik ez nion beti arrazoa ematen, eta sarri diskutitzen genduan”.

Luziak ere akorduan dauka Pakori asko gustatzen zitzaioela kantatzea eta musika entzutea, “eta, gaiñera, oso ondo kantatzen zaban. Tokadiskua ere bazaukan etxian, eta sasoi hartan oso etxe gitxitxan izaten zan holako aparatua”. Eta irakurtzea ere asko gustatzen zitzaion, “liburutegi edarra zaukan etxian”.


Gizon elegantea omen zen Pako, “elegante jantzia gustatzen jakon. Elgoibarren txaketa zurixa jantzitxa ibiltzen zan gizon bakarretakua zan. Pakoren armarixuan orduko gizonak erabiltzen ez zittuzten gauzak zauden. Elgoibarko señorituena zan”. Eta jaten ere “sibarita xamarrra zan”.

Luziaren esanetan, Pako gogorra zen, baina negarrak errez egiten zion ihes: “negar errezekua zan, sentimental. Anaixa hil ondoren, adibidez, sarri etortzen zan gurera, eta behin baiño gehixaotan amaittu zaban negarrez anaixaren gaiñian berbetan”.



Manolo Rementeria

Pakoren txikitako laguna



«Bixori
gustatzen
jakun neskekin
agarraua
dantzatzia»

Pako eta Manolo txikitako lagunak izan ziren. Ez ziren eskolan elkarrekin ibili, baina bata Errosario kalekoa eta bestea San Bartolomekoa izanik, kalean egin zuten bat, “lehen lagunak kalia egiten ziran; eguna kalia ematen genduan, eta bertan egiten gennituan lagunak”.

Manoloren esanetan, antzerako gustuak zituzten txikitak: “Ez genduan kirolak egiten; sasoi hartan ez zagan horrelako zaletasunik. Neguan zinera, eta udan inguruko mendixetara juten giñan domeketan”. Hori bai, bieie gustatzen zitzaien dantza egitea: “Dantza egitea asko gustatzen jakun. Baiña, sueltuan ez, eh! Neskekin agarrauan egitea gustatzen jakun. Domeka arratsaldietan bandiak jotzen zaban, eta neskekin dantzan egiteko aprobetxatzen genduan”.

Irakurtzeko afizioa ere biek zuten: “Nobelak edo ahal zana irakurtzen genduan, gure eskuetara jausten zana. Akordatzen naiz “La dama de las camelias” oso liburu famosua zala sasoi hartan. Nundik jiraturko billa ibili giñan hara eta hona, eta, azkenian, inguratu genduanian, haura zan emozioa nobelia irakurtzerakuan. Bixok ere sentimentalak giñan, itxuria”.


Pako omen zan kuadrilako jefia: “Pakori sueltuan ibiltzia gustatzen jakon. Karakter haundikua zan, zittala ere bai askotan, baina ez giñan hasarratzen. Mutil ona zan; bera zan kuadrillako animatzaillia”.

Pakok neskalaguna topatu zuenean bien arteko harremana gutxitzen joan zen, baina lagunak izan ziren Pako hil arte: “Nobixia topau zabanian neskian kuadrilliakin hasi zan urtetzen, baiña urtebetetze egunetan beti elkartzen giñan. Eta Txiki Egunian ere beti geratzen giñan txikiteorako eta bazkaltzeko”.



Felix Etxeberria,

Pakorekin kultur gintzan jardundakoa



«Pako izan
zan gerra
osteko
gure argi
bakarra»

Gerra ostean ezagutu zuen Felixek Pako, Felix umea zela. “Pakok nik baiño 7 urte gehixao zauzkan, eta askotan ikusten naban dantzan. Neri asko gustatzen jatan dantzia, eta Pako oso dantzari ona zanez, berari begira egoten nitzan”. Gero, 50eko hamarkadan, bien arteko harremana handitzen joan zen: “Pako eta bere etxeokak Sogueta basarrira juten ziran Aberri Eguna ospatzera, eta geu ere juten giñan hauek kantuan zelan jarduten zebe ikusi eta entzutera”.

Felixen esanetan, 50eko hamarkadan Pako izan zen kultur erreferentzia: “Bera izan zan gerra osteko argi bakarra; herri maillako dinamikan, bera zan mobitzen zan bakarra”. Antzerki eta dantza jaialdiak antolatzen zituen Pakok, eta, poliki-poliki, antolakuntza lanetan laguntzen hasi ziren Felix eta beste batzuk. “Odeoian antolatzen genituan antzerkixak eta bestelako jaialdiak. Ausarta eta ona zan Pako horrelakuak antolatzen. Sasoi hartan dana debekauta zagan, baiña Pakok beti izaten zittuan gauzak eta gobernadoriaren permisua lotuta”.

Gau-eskola ere berak lortutako baimen bati esker jarri zen martxan 56an. “Gau-eskoliana ere bere ideia izango zan, dudaripe. Euskaltzaindiaren permisua lortu eta herriko bi abade ipini zittuan euskarako eskolak ematen. 80 lagun elkartu giñan estreñako taldian”.

Pakorekin lan egitea erreza al zen galdetuta, zera erantzun digu Felixek: “Pako motorra zan, eta motor haundixa gaiñera. Baiña motorra erretzen juten da, eta, batzuetan, txinpartak urtetzen jakoz. Gorabehera batzuk izaten genituan, baiña garbi geunkan bera bezelakorik ez zaguala, eta bere atzetik segitu behar genduala”.



Itziar Ajuria

Pakorekin antzerkian ibilitakoa



«Pakok erabaki
zaban antzerkia
euskaraz
egin behar
genduala»

Betidanik izan zuen tratua Itziarrek Pakorekin, “Ikastolan ere berak esanda sartu nintzan. Pakoren tallarrera letrak kobratzera jun nintzan batian, berak esan zian Elgoibarren ikastolia zabaltzeko asmua zaguala eta andereñua behar zala”.

Antzerkian, elizako taldearekin hasi zen Itziar: “Koruan egoten giñan kantuan, eta abadiak animatuta, antzerki taldea prestatzia pentsau genduan. Laster iza zan estreñako obrira”. Obraren batean, baina, Parrokiako haserretu egin zitzaion soinekoren batek eskote handi xamarra zeukalako: “Orainguak ikusiko baltitu zer esango ete zaban!”.

Parrokiako taldea desagertu zenean, Pakok hartu zuen antzerkiaren ardura. Itziarrek, berriz, diru kontuak eramaten zituen. “El Caserio izan zan Pakorekin egin genduan lehen obrira. Leku askotara jun giñan, eta sekulako exitua euki genduan”. Ordura arteko obra guztiak gaztelaniaz egin zituzten, baina egun batean Pakok zera esan zien: “Se akabo! Hamendik aurrera euskaraz egingo dogu antzerkixa”. “Aitona eta biloba” izan zen euskaraz egin zuten lehen obra: “honekin nora guaz? esaten naban hasieran, baiña demaseko exitua euki genduan. Herri mordua pasau genduan, eta Bilboko Arriagan ere egon giñan. Sekulakua izan zan”.

Taldeko burua Pako zela aitortu digu Itziarrek. Berak aukeratzen eta prestatzen zituen obrak, eta aktore lanak ere egiten zituen. Entsaioak ere sarri egiten zituzten, eta “Pako asko hasarratzen zan bateron bat entsaiora berandu etortzen bazan”. Baina oso giro polita zeukaten taldean: “Barrez lehertzen egoten giñan askotan. Antzerki talde bat giñan, baiña baita lagun kuadrillia ere”.





*1956an zabaldu zenuen gau-eskolako atea.
Euskara gurera sartzeko.*

*Gero etorri ziren AEK eta Udal Euskaltegia.
Bi ate toki berera iristeko.*

*Eta, konturatu orduko, 50 urte bete dira.
Urte asko,
ilusio mordo bat,
baina desio bakarra:
elgoibartarrok euskalduntzea.*

*Ez dugu zuk zabaldutako aterik itxiko, Pako.
Eskerrik asko.*

Gehigarriaren eragileak: Elgoibarko Izarra, AEK euskaltegia eta Udal Euskaltegia • **Babeslea:** Elgoibarko Udala
Laguntzaileak: Foru Aldundia eta Eusko Jauriaritza • **Testual eta elkarrizketak:** Imanol Larrañaga • **Diseinua:** Jaione Unanue



Elgoibarko
Udala